


BEHIEN ENTZEFALOPATIA espongiformearen krisia dela eta behi-haragiaren eta behi-haragiarekin egindako produktuen merkatuan izandako ezegonkortasunaren ostean, produktu horiek ekoizteko eta merkaturatzeko baldintzen gardentasun handiagoak –batez ere horien arrastoari segitzeko aukerari dagozkionak– kontsumitzailearen konfiantza sendotu du eta iruzurrak gertatzea ekiditen du, produktua egoki eta garbi etiketatzearen bidez, hain zuzen ere.

2002an sartu zen indarrean 1760/2000 Araudiaren, Europako Legebiltzar eta Kontseiluarenaren, bigarren aldia, behi-haragia eta behi-haragiarekin egindako produktuak identifikatzeko, erregistratzeko eta etiketatzeko sistema ezartzen duena. Beraz, 2002ko urtarrilaz geroztik behi-haragiaren etiketak beste bi datu eskaini behar ditu ezinbestean:

- Animalia zein herrialdetan jaiotakoa den, herrialde hori Europar Batasuneko izan nahiz beste hirugarren bat izan.
- Animalia zein herrialdetan edo herrialdeetan hazitakoa den.

Animalia herrialde berean jaio, hazi eta hil bada (Europar Batasuneko kide den herrialderen batean zein beste hirugarren batean), hauxe adieraz daiteke: “Jatorria: herrialdearen izena”.



2000. urteko irailaren 1az geroztik, behi-haragia merkaturatzeko prozesuan parte hartzen duten agente guztiek etiketatu behar dute produktua. Hori ondoren adierazitako bi modu hauekoren batean egin dezakete:



Behi-haragiaren Etiketa



Kontsumitzailearen
Europako Zentroa

ONTZIRATUTAKO BEHI-HARAGIAREN ETIKETA

Piezaren izena	BEHI-AZPIZUNA	Enpresaren identifikazioa	CARNICAS RIBERA S.A. TRIANOA KALEA, Z.G., GASTEIZ (ARABA)
Animaliaren identifikazioa	Hiltegiaren identifikazioa		
ABELBURU ZK.: ES 001578369847	HILTEGIA: E. 10.05462/VI		
Zatikatzeko tokiaren identifikazioa		ZATIKATZEKO TOKIA: E. 10.34238/VI	
Jatorria	FRANTZIA	Hazteko herrialdeak	FRANTZIA ESPAINIA
Albaitaritzarikuskaritzaren zigilua		ESPAINIA 10.34238/VI E.E.E.	
Prezioa kiloko	25,24 €/Kg	0,512 Kg	Datak
	12,92 €		
Kantitate garbia		ontziratze-data: 2002.01.08	
Guztizko zenbatekoa		iraungitze-data: 2002.01.14	

- ohiko etiketaren bidez.
- saltokietan jarritako kartel argitzaile eta ikusteko moduko bidez.

Haragiaren sailkapena espeziearen, adinaren eta kategoriaren arabera egiten da. Kategoria animaliaren gorputzean ebakitako haragiak duen kokalekuaren arabera baino ez da. Horrek ez du zerikusirik haragiaren kalitatearekin, hori beste faktore batzuen mendekoa baita, besteak beste jatorrizko animalien ezaugarri onen edo berorren manipulazio zuzen eta higienikoaren arabera.

Produktuak etiketatzea

Horrenbestez, kontsumitzaileak ikusgai izan behar du Europar Batasunak eskatutako informazioa, baita elikagaiak etiketatzearen inguruan estatuko araudiak eskatutako datuak ere. Horiek ondoren zehaztuko ditugunak dira, hain zuzen.

Hauxe eskatzen du estatuko araudiak:

- Produktuaren izena (behi-haragia).
- Kanalen kategoria (zezena, idia, behia edo txekorra, eta abar).
- Bi faktoreren arabera kanal-mota: abelburuaren osaketa (goi-mailako, bikaina, oso ona, ona, ez hain ona edo erdipurdikoa) eta koipeztatze-egoera edo koipe-kantitatea (koiperik gabea, ez oso estalia, estalia, koipetsua edo oso koipetsua).
- Piezaren izen komertziala (azpizuna, maskala, tapa, lepoaldea, besokia...).

- Enpresaren identifikazioa (fabrikatzailearen edo ontziratzailearen izena, sozietatearen izena edo izendapena, edo EBn finkatutako saltzailea eta berorren helbidea).
- Lotea.
- Hizkuntza ofizialeko inskripzioak.
- Kanalean, tintarekin edo suarekin, markatutako albaitaritza-ikuskaritzaren zigilua.

Europako araudiak, bestalde, hauxe eskatzen du:

- Haragiaren eta animaliairen edo lotearen arteko erlazioa bermatuko duen erreferentzia-zenbakia.
- Animalia hil duen hiltegiaren baimen-zenbakia, eta hiltegiaren herrialdea, hori Batasuneko kide izan nahiz beste hirugarren bat izan.
- Zatikatzeko tokiaren baimen-zenbakia eta berorren herrialdea, hori Batasuneko kide izan nahiz beste hirugarren bat izan.
- Zein herrialdetan jaio den.
- Zein herrialdetan hazi den.

Haragi xehatuak aurrez aipatu dugun elikagaiak etiketatzeari buruzko estatuko legeriak eskatutako datuak eta Europako araudiak ezinbestekotzat jotakoak adieraziko dituen etiketa behar du. Zehatzago esateko honakoak:

- Haragiari edo loteari dagokion animalia edo animalia-multzoa identifikatzeko zenbakia.
- Animalia zein herrialdetan hil den.
- Produktua zein herrialdetan prestatu den.
- Eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, jatorrizko herrialdea zein den, hori ez badator bat produktua prestatu duen herrialdearekin.

ONTZIRATU GABEKO BEHI-HARAGIAREN ETIKETA

Piezaren izena		BEHI-AZPIZUNA
Animaliaren identifikazioa	Hiltegiaren identifikazioa	HILTEGIA: E. 10.05462/VI
	Zatikatzeko tokiaren identifikazioa	ZATIKATZEKO TOKIA: E. 10.34238/VI
Jatorria	Hazteko herrialdeak	Prezioa kiloko
ABELBURU ZK.: ES 001578369847	FRANTZIA ESPAINIA	25,24 €/Kg



Ezinbestekoak ez diren datuak

Etiketa ezinbestekoak ez diren beste datu batzuekin osa daiteke:

- Haragia noiz xehatu den.
- Hiltegiaren baimen-zenbakia.
- Hiltegia Batasuneko zein herrialdetan edo beste zein hirugarren herrialdetan dagoen.
- Zatikatzeko tokiaren baimen-zenbakia.
- Zatikatzeko tokia Batasuneko zein herrialdetan edo beste zein hirugarren herrialdetan dagoen.
- Animalia Batasuneko zein herrialdetan edo beste zein hirugarren herrialdetan hazi den.

ETA GOGOAN IZAN...

Eskakizun horiek elikagaien segurtasunaren *standard*-ak bermatzen laguntzen duten arren, kontsumitzaileek elikagaiak zaindu, erabili eta tratatu aurreko aldia osatzen dute. Ondoren dituzue haragia erabiltzeko eta kontsumitzeko aholku batzuk.

Behi-haragia erosi ondoren, lehenbailehen eraman toki fresko batera eta 1 eta 4°C arteko tenperaturan edo hozkailuko lekurik hotzenean gorde. Komenigarria da, halaber, haragiaren zukua ez erortzea prestatutako beste elikagai edo plateren gainean.

Haragia hiruzpalau egunen buruan jan behar bada ere, haragia xehatua denean hobe da egun batean edo bitan kontsumitzea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
Merkataritza eta Kontsumo Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Viceconsejería de Comercio y Consumo

Donostia kalea, 1 • 01010 Vitoria-Gasteiz • Tfnoa.: +34 945 01 99 48 • Faxa: +34 945 01 99 47
E-maila: cec@ej-gv.es • <http://www.euskadi.net/consumoinfo>

2003



Kontsumitzailearen
Europako Zentroa KEZ

Centro Europeo del
Consumidor CEC